



IparHorrantza

6-15 Bisita pedagogikoak

7 Abusu Ikastola
ulertuz
hitzaldia

18:00-19:30

8 Eta DBH
ondoren, zer?
hitzaldia

15:30-17:00

11 Jantokiko
ate irekiak
bazkaria

12:30etan hitzaldia
14:00etan bazkaria

13 Ikastetxetara
bisita

10:00-11:30
(DBH4ko Ikasleentzat)

13 Alvaro
Beñaranen
hitzaldia

18:00-19:30

14 Guraso
eskola
DBH

17:30-19:00

Bisita pedagogikoak

Otsailak 6-14

Nola lan egiten dugu Ikastolan?

Bisita pedagogikoen bidez egunerokotasunean Ikastola osoan lan egiteko dauzkagun metodologiak bertatik bertara ikusi eta testuinguru errealean ezagutzeko aukera izango dugu.

Bisitak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan egingo dira, eta beharrezkoa izango da aurrez izen-ematea.

[Egin klik hemen izen-emateko](#)



Abusu Ikastola ulertuz hitzaldia



Otsailak 7

Hitzaldia 18:00

Zein metodologia erabiltzen ditugu Abusu Ikastolan? zein lotura daukate etapa bakoitzeko ereduak? Zeintzuk dira metodologia hauen atzean dauden arrazoi eta printzipioak?

Hitzaldiaren helburua familiei Abusu Ikastolako proiektu pedagogiko-metodologikoa modu bateratuan ulertzen eta kokatzen laguntzea da.

Ikaskuntza prozesua ahalik eta testuinguru egokienean garatu ahal izateko baliatzen ditugun metodologiaren arrazoiak eta fundamentazioa partekatuko ditugu saio honetan guretzako bidelagun zaituztegun familiekin.

[Egin klik hemen izen-emateko](#)



Eta, DBH ondoren, zer?

Otsailak 8

Hitzaldia 15:30 - 17:30
Olatxuko kultur etxean

Orientazio hitzaldia DBH bukatu ostean ikasleek dituzten aukera desberdinak argitzeko (Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloak eta Oinarrizko Lanbide Heziketa). Zentro ezberdinetako hizlariak izango ditugu aukera hauen berri emateko: Kirikiño, Otxarkoaga, Harrobia eta Txorierrri.

[Egin klik hemen izen-emateko](#)



Jantokiko ate irekiak eta bazkaria

Otsailak 11

Hitzaldia 12:30 | Bazkaria 14:00

Jantokietan pedagogia indartzeko, osasuna zaindu eta ingurua babesteko ekimenak bueltatzeko lanean ari gara Askorako Mahi-Mahi proiektuko lantaldearekin. Hori dela eta, datorren otsailaren 11an jantokiko ate irekien eguna antolatu dugu. Egun horretan familiak ikastolara hurbil zaitezten deia egiten dizuegu, Askoraren eskutik Mahi mahi proiektua ezagutu dezazuen eta gure sukaldariek prestatzen duten bazkaria dasta dezazuen.

[Egin klik hemen izen-emateko](#)




Alvaro Beñaranen hitzaldia

Otsailak 13

Hitzaldia 18:00 | 0-9 urteko haurren gurasoentzat

Gure proiektuan familiak bide lagun izatea nahi dugu, eta horretarako, pertsonaren garapenaren zentzua ulertzen lagunduko digu Alvaro Beñaran pedagogo eta psikomotrizistaren hitzaldiak. Haurren garapenean helduarekin izandako harremanen garrantziaz arituko da; afektua eta mugak, heldutasun prozesuaren oinarriak izango ditu hizpide, besteak beste.

[Egin klik hemen izen-emateko](#)



Guraso eskola DBH

Otsailak 14

Hitzaldia 17:30 – 19:00

Nola lagunduko diegu gure seme-alabei etapa konplexu honetan?

Hazkunde zentroaren eskutik "Guraso Eskola" programan gure seme-alaben garapen pertsonal eta hezkuntzan zehar baliagarri izango diren baliabideak eskuratzeko formakuntza izango dugu.

[Hitzaldiaren azalpen bideoa](#)



[Egin klik hemen izen-emateko](#)

